



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2018ko ABENDUAREN 20an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko abenduaren 20an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK:     Gotzon Jauregi Sarasola  
                      Felix Joaquin Asensio Robles  
                      Angel Serrano Martinez  
                      Aritz Sarria Saraqueta  
                      Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
                      Ander Leon Nanclares

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:


- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
  - **2018ko azaroaren 5ean egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 5 de noviembre de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 03/2018 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada/ Aprobación inicial de la modificación de créditos 03/2018.**
- 4. P.P. andreak aurkezturiko diru-laguntzaren azterketa, hala bada/ Estudio de la petición de Ayuda económica presentada por P.P.**
- 5. Larraul/Asteasu/ Orixe autobus zerbitzuaren eskaera, hala bada/Solicitud del servicio de autobús Larraul/Asteasu/Orixe.**
- 6. J.M.A. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada/Estudio de la solicitud realizada por J.M.A.**
- 7. J.I. jaunak eginiko obra baimena eskaeraren azterketa, hala bada/Estudio de la solicitud de licencia de obras realizada por J.I.**
- 8. Ekarpén ekonomikoa, txirrindulari lasterketa: Emakumeen XIV. Aiztondo Sari nagusia, hala bada./ Aportación económica, carrera ciclista: Emakumeen XIV Aiztondo Sari Nagusia.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9. Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzua S.L.-k aurkezturiko 1762018 fakturaren onarpena eta ordainketa: Parke zaharreko konponketa lanak/ Aprobación y orden de pago de la factura 1762018 presentada por Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzua S.L.: Arreglo del “ Parke zaharra.”
10. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak, 2016ko abenduaren 14an emandako aginduan, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzaren 2017ko deialdiaren babesean,” Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea” izeneko Proiektua gauzatzeko emandako diru-laguntzari uko egitea./ Denegar la ayuda económica concedida al amparo de la Orden de 14 de diciembre de 2016 de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, por la que se procede a la convocatoria para el ejercicio 2017 de ayudas a la promoción y el desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para la ejecución del proyecto “Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea”.
11. Etxebizitza sailburuordearen 2017ko abenduaren 29ko ebazpenaren babesean emandako diru-laguntzari uko egitea,” Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea” izeneko Proiektua gauzatzeko./ Denegar la ayuda económica concedida al amparo de la resolución de 29 de diciembre de 2017 del Viceconsejero de Vivienda, para la ejecución del proyecto “Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea”.
12. Tolomendi eta Larraulgo udalaren arteko hitzarmenaren onespina, IKT zerbitzua./ Aprobación del convenio entre Tolomendi y el Ayuntamiento de Larraul, para el servicio de IKT.
13. 2018/2019 ikasturtean, Larraulen, Euskal Dantza ikastaroaren zerbitzua emateko Oinkari Dantza Taldeari esleipenaren aldaketa, hala bada. / Modificación de la adjudicación del contrato de servicios a Oinkari Dantza Taldea, para impartir un curso de Euskal Dantza en Larraul durante el curso escolar 2018/2019.
14. Oporrak bakean 2018, gastuen kitapenaren onespina./ Oporrak bakean 2018: Aprobación de la liquidación de gastos.
15. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
16. Beste batzuk/Otros.
17. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
  - 16.1. Abenduak 3: Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta adierazpenaren onespina, hala bada/ 3 de diciembre: Aprobación del la declaración institucional por el día internacional del Euskara



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**16.2. Azaroak 25: Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna del eta adierazpenaren onespina, hala bada/ 25 de noviembre: Aprobación de la declaración institucional por el día internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.**

**16.3. Larraulgo herritarrak aurkezturiko mozioa: Presoen urrunketa politikarekiko ezadostasuna azaltzeko mozioa/ Moción presentada por Larraulgo herritarrak: Presoen urrunketa politikarekiko ezadostasuna azaltzeko mozioa.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

▣ 2018 urteko azaroaren 5ean Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren, Gotzon Jauregi zinegotziak ondorengoak azaltzen ditu:

-Setalde eta Lopetegi enpresek aurkezturiko fakturen argibideak eskatu zituela eta oraindik ez zaiola honenberri eman. Nahiz eta bi faktura hauek ordaindu.

-Joxan Altuna herri langileari buruz, egin behar duen ordutegia urte osoan zehar goizeko 8etatik eguerdiko 12.30 arte dela.

Beraz, Gotzon Jauregi zinegotziak, azaroaren 5ean eginiko Udalbatzarraren akta zirriborroko bi puntu hauekin ados ez dagoenez, ez duela akta onartzen adierazten du.

Ondorioz, 2018 urteko azaroaren 5eko Udalbatzaren akta, gehiengoz onesten da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**


22/2018 Alkatetza Ebazpena, urriaren 30ekoa, non 2018ko 3. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

23/2018 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 12koa, non K.J.S. -ri hainbat lurjauzien konponketak egin ditzan esleipena egitea, ebazten duena.

24/2018 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 30ekoa, Maderas Garmendia, S.L. ri Larraulgo Herri bidea erabiltzeko baimena ematen zaio, G.E. andrearen pinuak garraiatzeko, ebazten duena.

25/2018 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 10ekoa, 03/2018 kreditu aldaketaren espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **03/2018 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


#### ERABAKITZEN DU:

**LEHENEA:** Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### **KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:


Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.210.153.30.01 2018	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.HIRI ALTZ.	160,00	510,00	670,00
1 0000.210.163.00.01 2018	AZPIE ETA OND.GAST.KALE ETA BIDE GARB.	350,00	4.900,00	5.250,00
1 0000.210.171.00.01 2018	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.PARKE ETA LOR.	320,00	25,18	345,18



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.210.332.10.01 2018	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.LIBURUTEGIA	450,00	305,00	755,00
1 0000.210.933.00.01 2018	AZPIEG.ETA ONDAS.GASTUAK: OSTATUA	1.000,00	1.500,00	2.500,00
1 0000.220.920.00.01 2018	BULEGO MATERIALA ETA MANTENIM.	2.000,00	1.154,00	3.154,00
1 0000.221.161.00.02 2018	UR HORNIDURA	18.000,00	1.500,00	19.500,00
1 0000.221.920.00.01 2018	ARGI HORNIDURA: UDALETXEA	2.000,00	330,00	2.330,00
1 0000.221.933.00.01 2018	ARGI HORNIDURA: HERRI OSTATUA	800,00	331,17	1.131,17
1 0000.221.933.00.02 2018	UR HORNIDURA. OSTATUA	0,00	136,52	136,52
1 0000.222.323.00.01 2018	TELEFONO BIDEZKO KOM.ESKOLA	1.000,00	400,53	1.400,53
1 0000.222.933.00.01 2018	TELEFONO BIDEZK.KOMU: OSTATUA	200,00	106,92	306,92
1 0000.226.330.00.06 2018	KULTUR ASTEA	2.500,00	1.900,00	4.400,00
1 0000.226.332.10.06 2018	LIBURUTEGIAN BURUTZEN DIREN JARDUERAK	700,00	267,07	967,07
1 0000.226.334.00.06 2018	JARDUERA SOZIO KULTURALAK	809,16	512,93	1.322,09
1 0000.227.150.00.07 2018	AHOLKUL:AZTERK.,LAN TEKNIK.ARKITE.	10.000,00	3.318,00	13.318,00
1 0000.227.341.00.04 2018	KIROL GASTUAK	1.500,00	324,00	1.824,00
1 0000.421.330.00.01 2018	AIZTONDO ZERB.MANKOM. KULTURA	7.000,00	4.000,00	11.000,00
1 0000.422.430.00.01 2018	BESTE ENTIT.EKARP.TOLOSALDEA GARAT.	4.500,00	160,00	4.660,00
1 0000.430.231.10.01 2018	ASTEASUKO UDALA. BETANI ETXEBIZITZA BABE	3.000,00	721,59	3.721,59




## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.623.165.00.01 2018	FAROLAK	1.000,00	126,72	1.126,72
1 0000.685.933.00.01 2018	INBERTSIOAK: HERRI OSTATUKO MOBILIARIOA	0,00	3.400,20	3.400,20
1 0000.210.326.00.01 2018	AZPIEG.ETA OND.GASTUAK: KZGUNEA	0,00	909,48	909,48
1 0000.222.920.00.05 2018	KOMUNIKAZIO INFORMATIKOAK	8.000,00	310,00	8.310,00
1 0000.685.920.00.02 2018	INBERTSIO GASTUAK: ORDENAGAILU ETA INFOR	0,00	900,00	900,00
1 0000.628.332.10.01 2018	LIBURUTEGIRAKO LIBURUAK	500,00	4,00	504,00
1 0000.227.920.00.01 2018	GARBIKETA ZERBITZUA. UDALETXEA	1.800,00	110,24	1.910,24
1 0000.422.920.00.01 2018	BESTE ENTIT.EKARP.TOLOMENDI. IKT	1.850,00	16,60	1.866,60
1 0000.221.933.00.03 2018	GAS HORNIDURA: OSTATUA	250,00	268,51	518,51
1 0000.422.431.40.01 2018	BESTE ENTITATTEI EKARPENAK: HILTEGIA	128,00	19,00	147,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>69.817,16</b>	<b>28.467,66</b>	<b>98.284,82</b>

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2018	GERAKINAK	28.467,66
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>28.467,66</b>

**BIGARRENA:** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: 2018ko abenduaren 10ean egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

### KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

2018ko Aurrekontuaren 3. Kreditu Aldaketako espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2018ko aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2018rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuena Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelan ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu Aldaketako espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **P.P. ANDREAK AURKEZTURIKO DIRU-LAGUNTZAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik P.P.. andreak eginiko eskaera, non 2018/2019 ikasturtean Euskarako B1 maila prestatu nahi duela, Tolosako Aitzol Euskaltegiak Asteasuko herrian emango duen ikastaroan, kostu osoa 207,00 euro dira. Horregatik Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: P.P. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Asteasun, Tolosako Aitzol euskaltegiak emango duen B1 maila lortzeko euskara ikastaroa burutzeko asmoa duenez, ikastaroa egiteko diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

- Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.
- %85eko asistentzia justifikatu beharko du.
- Maila bakoitza behin bakarrik diruz lagunduko da.

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzi ziurtagiria aurkeztu beharko du.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:

-% 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.

-%50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri P.P. andreari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **LARRAUL/ASTEASU/ORIXE AUTOBUS ZERBITZUAREN ESKAERA, HALA BADA**

Ander Leon zinegotziak hitza hartzen du eta bertaratuei jakinarazten die, Orixe ikastetxera joaten diren Larraulgo batxiler ikasleek, ez dutela zuzeneko garraio zerbitzurik. Zerbitzua Asteasutik-Orixe ikastetxera izaten da goizean eta eguerdian/arratsaldean, Orixe ikastetxetik Asteasura. Asteasun hastea eta bukatzea autobus zerbitzuak, gurasoen beharra dakar, huen bitatekaritza zaila izaten delarik batzuetan.

Kontutan izanda gaia, Tolosaldea Garatzena idatzi bat igorri zen 2018ko azaroaren 26an, aipaturiko autobus zerbitzu hori Larraulera luzatzeko eskaera eginik (Tolosaldea Garatzenek Gipuzkoako Foru Aldundira eskaera egin du)

Tolosaldea Garatzeni eginiko eskaeraren idatzia ondorengoa da:

*“Batxilergoa egiten duten Larraulgo ikasleek, egun, ez dute bere erreferentziazko zentrora garraio publikoa erabiliz joateko aukerarik. Tolosaldeak eskaintzen duen zerbitzuaren arabera, goizero ibilgailu partikularrez garraituak izan behar dira Asteasuraino eta eguerdian, modu partikularrean ere, bertan jasoak izan. Herri gaztea izanik, gero eta gehiago dira, eta izango dira egoera honetan dauden erabiltzaileak eta Udal honetatik, erakundeetatik konponbidea emateko ordua heldu dela uste dugu.*

*TO07 zerbitzua (Asteasu-Tolosa) Larraulerraino luzatzea egokiena izango dela uste dugu, honako ordutegietan:*

*Gaur egun Asteasutik ateratzen diren 07:20 eta 08:30 zerbitzuak, Larraularen 5 minutu lehenago izatea abiapuntua, hau da 07:15etan eta 8:25etan Larrauletik abiatu eta gero ohiko ibilbidea egitea.*

*Era berean Tolosatik ateratzen diren 14:20, 15:30 eta 16:30 autobusen amaiera Larraul izatea, hau da Asteasuko geldialdia egin eta gero, Larrauleko plazara igotzea bertako ikasleak*





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Egungo ordutegien balioa Abenduaren 31ra arte izango dela irakurri dugu, beraz urte berriarekin hobekuntza hau hasteko moduan izango ginatekeela uste dugu. Ea denon artean lortzen dugun.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, goian aipaturiko idatzia berresten da.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **J.M.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik J.M.A. jaunak eginiko eskaera, non Soro-Zelai 43 eskuineko etxeko fatxadako egurra pintatzeko eta tximiniak konpontzeko obra baimena eman zitzaiola. Eguraldi txarra dela eta ez duela obra amaitu, horregatik obra baimenaren luzapena eskatzen du.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: J.M.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Soro-Zelai 43 eskuineko etxeko fatxadako egurra pintatzeko eta tximiniak konpontzeko obra baimena luzatzea 6 hilabetez.

BIGARRENA: Erabaki honen berri J.M.A. jaunari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**


#### **J.I. JAUNAK EGINIKO OBRA BAIMENA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik J.I. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Babes Txulo etxeko portxearen aldatze eta haunditze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2018 ko azaroaren 20ean eginiko txostenean dioena:

#### **“LARRAULGO BABES TXULO ETXEKO PORTXEAREN ALDATZE ETA HAUNDITZE LANEI ESKAERARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKOA**

J.I.E. jaunak, Babes Txulo etxean eranskin bat egiteko asmoa azaltzen du, Sergio Villar Sueskun arkitektoak garatutako txostena edo proiektua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Aurkeztutako proiektuan, Babes Txulo etxeke iparraldean dagoen gaur egungo portxea aldatu eta handitzeko egin behar diren lanak azaltzen dira. Proiektuan, lana deskribatzen duen memoria, aurrekontua eta planoak azaltzen dira.

Memorian, eta gaur egungo portxearen egurrezko habea hondatua dagoela ikusirik, portxe zaharra kendu eta berri bat egin nahi dela esaten da. Eranskin berriak zabalera berdina izango luke baina luzera, etxearena izango litzateke.

Egitura, metalikoa eta egurrezkoa planteatzen da eta teilatua, lata eta teilazkoa. Portxea aluminio eta kristalezko aroztegia batekin itxiko litzateke sarrerako aldean eta luzeraren erdian. Gune itxiaren azalera 20,80m<sup>2</sup>-koa izango litzateke eta irekia geratzen den zatiarena 10,40m<sup>2</sup>-koa (20,80m<sup>2</sup>/2).

Lanen betearazpen materialaren aurrekontua, **10.667,71 €**-koa da.


Udal baimena jaso zuen obrako proiektuan (1994), behe oineko proiektua eta goi oinako terraza bere osotasunean konputatu ziren erdia konputatu beharrean. Azalera hau kontsolidatua dago. Proposatzen den moldaketa berriarekin eta espazio ezberdinen azalaren zenbatze zuzenduarekin, Babes Txulo etxearen azalera erabilgarria ez da handiagotzen.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14<sup>o</sup> artikulua esaten duen bezala, eraikinaren kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute.

Babes Txulo etxea Larraulgo lur ez-hiritargarran kokaturik dago, bereziki D.20 produkzio zonaldean. Eraikina ez dago katalogatua. Larraulgo Arau subsidiarioen 47<sup>o</sup> artikuluan eraikinaren baldintzak finkatzen dira eta 48<sup>o</sup> artikuluan, eraikinen kanpo itxurarenak.

### Artículo 47.- Condiciones de edificación.

- Las edificaciones se ajustarán en cuanto a su volumetría y configuración general a las tipologías edificatorias de las construcciones existentes en Larraul. Responderán a una volumetría simple, con la cubierta inclinada a 2,3 o 4 aguas y con pendientes no superiores al 35%.
- Emergiendo sobre dicha cubierta se autorizará la ejecución de chimeneas y otras instalaciones de altura no superior a 1,20 mts.
- El perfil máximo de la edificación será de dos plantas sobre rasante, admitiéndose adicionalmente la construcción de sótanos y semisótanos - máximo de 1 planta bajo rasante-, así como el uso de los espacios resultantes bajo cubierta.
- La altura máxima de la edificación será de 7,5 mts. en los aleros dispuestos horizontalmente y de 9,5 mts en la cumbre. En ambos casos esas medidas se tomarán a partir de cada uno de los puntos de contacto del edificio con el terreno. Estas limitaciones no serán aplicables a las construcciones e instalaciones destinadas a usos rurales que necesaria y justificadamente deban superarlas por requisitos funcionales.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

*-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.*

*-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.*

*-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

\*Obra hondakinak, baimendutako zabortegei batera eramane beharko dira eta lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.I. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Babes Txulo etxeke portxearen aldatze eta haunditze lanak egiteko obra baimena ematea, beti ere, Udal Aholkulari teknikoak, 2018ko azaroaren 20an eginiko txostenean jasotakoari baldintzaturik.


BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**EKARPEN EKONOMIKOA, TXIRRINDULARI LASTERKETA:  
EMAKUMEEN XIV. AIZTONDO SARI NAGUSIA, HALA BADA**

Ikusirik, Danena Txirrindularitza elkarteak antolatu duela emakumeen XIV Aiztondo Sari Nagusia, 2018ko maiatzaren 27an egin zena.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, aipaturiko lasterketaren zuritze kontuak aurkeztu dituela Danena Txirrindularitza elkarteak, bertan Memoria bat, gastuen frogagiriak eta azken hauek kontutan izanik, Larraulgo Udalaren ekarpena 482,35 eurotako dela azaltzen dute.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari 482,35 euroko ekarpena burutzea, 2018ko urtean emakumeen txirrindularien sari nagusia antolatzeagatik.

BIGARRENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari aurkezturiko kontuen zuritzeak onartzea.

HIRUGARRENA: 482,35 eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, 2018 udal aurrekontuetako 422.341.00.02 partidaren kontura.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUA S.L.-K AURKEZTURIKO 1762018 FAKTURAREN ONARPENA ETA ORDAINKETA: PARKE ZAHARREKO KONPONKETA LANAK**

Ikusirik, Parke Zaharreko konponketak egiteko Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzua S.L.-ri esleitu zitzaiola.

Ikusirik Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzua S.L.-k, aipaturiko lanak bukatu dituela, dagokion faktura aurkeztu duelarik.

Aurkeztutako faktura, 1762018 da eta bere zenbatekoa 3.569,50 eurotako da.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo


### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzua S.L.-k aurkezturiko 1762018 faktura onestu, bere zenbatekoa 3.569,50 euro izanik.

BIGARRENA: 3.569,50 eurotako gastua onestu eta bere ordainketa egin dadin agindu, 2018ko udal aurrekontuetako 623.153.30.02 partidaren kontura.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILBURUAK, 2016 ABENDUAREN 14AN EMANDAKO AGINDUAN, NON EUSKAL**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA-EREMUAK SUSTATU ETA GARATZEKO LAGUNTZAREN 2017KO DEIALDIAREN BABESEAN, LARRAULGO UDALETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUNEN BALDINTZEN HOBETZEA IZENEO PROIEKTUA GAUZATZEKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZARI UKO EGITEA**

Ikusirik Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak, 2016ko abenduaren 14an emandako aginduan, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzaren 2017ko deialdiaren babesean, “Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobetzea” izeneko proiektua gauzatzeko 18.403,50 euro esleitu zitzaiola Larraulgo Udalari.

Ikusirik esleitutako diru-laguntza honekin, Larraulgo Udalak, ezin duela bere aurrekontuaren arabera aipaturiko lanak burutu.

Ikusirik, Idazkari-kontuhartzaileak batzarkideei ohartarazten diela, 2017ko udara ezkerro derrigorrezkoa dela Udal eraikinetan irisgarritasuna bermatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:


**LEHENA:** Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak, 2016ko abenduaren 14an emandako aginduan, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzaren 2017ko deialdiaren babesean, “Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobetzea” izeneko proiektua gauzatzeko esleitutako 18.403,50 euroko diru-laguntzari uko egitea.

**BIGARRENA:** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailari erabaki honen berri ematea.

#### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

**ETXEBIZITZA SAILBURUORDEAREN 2017KO ABENDUAREN 29KO EBAZPENAREN BABESEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZARI UKO EGITEA, LARRAULGO UDALETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUNEN BALDINTZEN HOBETZEA, IZENEO PROIEKTUA GAUZATZEKO**

Ikusirik Etxebizitza sailburuordearen 2017ko abenduaren 29ko ebazpenaren babesean, Larraulgo Udalari 20.472,02 eurotako diru-laguntza bat esleitu zitzaiola, “Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobetzea” izeneko proiektua gauzatzeko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik esleitutako diru-laguntza honekin, Larraulgo Udalak, ezin duela bere aurrekontuaren arabera aipaturiko lanak burutu.

Ikusirik, Idazkari-kontuhartzaileak batzarkideei ohartarazten diela, 2017ko udara ezkerro derrigorrezkoa dela Udal eraikinetan irisgarritasuna bermatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Etxebizitza sailburuordearen 2017ko abenduaren 29ko ebazpenaren babesean, Larraulgo Udalarri emandako 20.472,02 eurotako diru-laguntzari uko egitea, "Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobetzea" izeneko proiektua gauzatzeko.

BIGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailari erabaki honen berri ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA**

### **TOLOMENDI ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, IKT ZERBITZUA**

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen dutela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengoa


### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza lanaren sustapenarerako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko lankidetzeta-hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

### **HAMAHIRUGARREN PUNTUA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2018/2019 IKASTURTEAN, LARRAULEN, EUSKAL DANTZA IKASTAROAREN ZERBITZUA EMATEKO OINKARI DANTZA TALDEARI ESLEIPENAREN ALDAKETA, HALA BADA**

Ikusirik, 2018ko urriaren 4ean egindako Udalbatzarrean, Oinkari dantza taldeari esleitu zitzaioa 2018/2019 ikasturtean, Larraulen, Euskal dantza ikastaroaren zerbitzua emateko esleipena.

Ikusirik, talde txikienari, astean, 30 minutuko zerbitzua eskaintzen zaiela, 45 minutura luzatzeko eskaera jaso delarik Udaletxe honetan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Oinkari dantza taldeak eskaintzan duen talde txikienaren euskal dantza ikastaroa, astean, 30 minutuko saioa 45 minutura luzatzea. Honek suposatzen duen gastua onartuaz.

**BIGARRENA:** Ebazpen hau interesatuari, udaleko ekonomia sailari eta kultura sailari jakinaraztea, dagokion errekurtsioak adieraziz.

#### **HAMALAU GARREN PUNTUA**

#### **OPORRAK BAKEAN 2018, GASTUEN KITAPENAREN ONESPENA**

Ikusirik Tolosako Udalak “Oporrak Bakean” programa abian jarri duela, 2018. Urtean, Tolosaldea Sahararekin Elkartarekin lankidetzan. Programa honetan parte hartu dute ere Tolosaldeko gainerako udalek ere.


Ikusirik, 2018ko ekainaren 7an egindako Udalbatzarrean onestu zela, Oporrak bakean programan parte hartzea. Horretarako Larraulgo Udalak, 125,00 eurotako diru ekarpena egitea onestu zuen.

Ikusirik, aipaturiko programa aurrera eramateko Tolosako Udalaren eta Larraulgo Udalaren artean hitzarmen bat sinatu dela.

Ikusirik Tolosako udaletxetik igorritako idatzia, non Saharako haurren harrerako Oporrak Bakean 2018 programan hainbat herri parte hartu dutela eta Tolosako Udala programaren kudeaketaz arduratu denez, Larraulgo Udalarik 125,00 eurotako ekarpena egin dadila eskatzen dutelarik, horretarako gastu guztien zurigarriak aurkeztu dute.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Larraulgo Udalari dagokion Oporrak Bakean 2018 programaren kostua onestea, hau da 125,00 euro.


BIGARRENA: 125,00 eurotako gastua onestea eta Tolosako Udalari aipaturiko diru kopurua ordaintzeko agindua ematea, 2018ko udal aurrekontuetako 417.231.00.01 partidaren kontura.

### **HAMABOSTGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

NATIONAL PEN	78,35
MONTTE	617,81
AXA	1.017,31
MONTTE	79,86
CORREOS	9,53
ZU ETA BIOK	829,80
KIROLZER	49,40
CALPARSORO INDUSTRIAL	40,23
ZIZURKIL	36,15
AXA	1.484,95
CUALTIS	494,58
EBA ERKIZIA	905,28
MANPEL	45,98
TOLOMENDI	155,55
GARAJE EKIN	54,05
KOLDO JAUREGI	3.630,00
BERRI LANTEGIA	38,01
GOIKOETXEA	7,78
GILBE	26,82
HOSTELBERRI	384,34
OLABERRIKO UDALA	1.182,72
ALBIZTURGO UDALA	84,62
AITZIBER CENZANO	81,90
D.S.D.	54,00
JOXAN ALTUNA	315,13
KIROLZER	51,00
AMONARRIZ ITURGINTZA	1.166,04
TOLOMENDI	155,55
EBA ERKIZIA	886,02
KATILLU TXULO ELKARTEA	28,50






## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

FERRETERIA BARBE	106,04
HOSTELBERRI	3.382,19
ZU ETA BOK	933,53
SETALDE	349,90
PANDA	199,66
GALTZAUNDI	540,00
TOLOSALDEA GARATZEN	53,95
CORREOS	8,58
BERRI LANTEGIA	83,32
MANPEL	204,05
JOXAN ALTUNA	155,56
VEDISCOBA	327,27
VEDISCOBA	190,59
VEDISCOBA	625,39
VEDISCOBA	280,18
VEDISCOBA	612,97
NORTEGAS	16,36
NORTEGAS	56,40
NORTEGAS	12,64
IBERDROLA	28,71
IBERDROLA	128,25
IBERDROLA	222,39
IBERDROLA	237,34
IBERDROLA	481,77
IBERDROLA	183,12
IBERDROLA	90,82
IBERDROLA	139,63
IBERDROLA	76,47
IBERDROLA	32,04
IBERDROLA	181,58
IBERDROLA	175,05
MOVISTAR	182,56
MOVISTAR	25,63
MOVISTAR	104,61
MOVISTAR	25,40
MOVISTAR	0,99
MOVISTAR	160,04
MOVISTAR	182,11

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **24.788,35** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMASEIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **HAMAZAZPIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **17.1. ABENDUAK 3: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik, Eudel-ek aurkezturiko Abenduak 3: Euskararen nazioarteko eguna dela eta ondorengo adierazpena, non ondorengo dioen:

#### **2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA**

##### ***Bizi. Prest***

##### ***Egunero delako euskararen aldia***

*Bizi. Prest.*

*Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.*


*Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.*

*Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakararra.*

*Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakararra.*

*Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.*

*Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.*

*Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tartea gainditzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.*

*Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarteraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.*

### ***Euskararengizartea. Gizartearen euskara***

*Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.*

*Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propioetik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.*

*Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkero, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.*

*Eta egin egingo dugu.*

*Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoa prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.*

*Elkarrekin.*

*Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.*


*Elkarri euskara eskainiz.*

*Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.*

*Bizi. Prest.*

*Egunero delako euskararen aldia.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Eudelek aurkezturiko “Euskararen nazioarteko eguna, abenduak 3 adierazpena”, bere osotasunean onesten du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

## 17.2. AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Eudel-ek aurkezturiko Azaroak 25: Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna dela eta ondorengo adierazpena, non ondorengo dioen:


### **“AZAROAREN 25erako ADIERAZPEN INSTITUZIONALA** **“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”**

#### ***Biktimen erreparazioak emakumeei ahotsa ematea eskatzen du***

*Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den gizarte eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugubadagoela loturarik genero-arrazoiengatik bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.*

*Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek egiarako eskubidea dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan **biktimizazio bikoitza** gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.*

*Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun arduraren sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. **BERDINSARE**atik, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren*



## LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

*artikulazioa lantzen ari gara, nola-eta Istanbuleko Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.*

***Ezinbestekoa da emateaahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari.*** Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

### ***Horretarako, Udalek ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:***

- *Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezen, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.*
- *Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarritz.*
- *Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.*
- *Ekimen kolektiboek laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.*
- *Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatuzeko.*
- *Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorpen publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- *Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Eudelek aurkezturiko “Azaroak 25: Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna” adierazpena, bere osotasunean onesten du.

### **17.3.LARRAULGO HERRITARRAK AURKEZTURIKO MOZIOA: PRESOEN URRUNKETA POLITIKAREKIKO EZADOSTASUNA AZALTZEKO MOZIOA**

Ikusirik Larraulgo Herritarrak aurkezturiko mozioa, non ondorengoa dioen:

#### **“PRESOEN URRUNKETA POLITIKAREKIKO EZADOSTASUNA AZALTZEKO MOZIOA**

Lege Orokorrean askatasuna kentzeko zigorrak betetzean deserrotzea saihesteko ezarritakoa kontuan izanik, zigor horien bergizarteratze printzipioen arabera, Larraulgo Udalbatzak adierazten du ez dagoela ados urruntze espetxe-politikarekin. Alde horretatik, ETAre indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berriaren barruan, uste dugu espetxe-politika berri bat behar dela, hain zuzen ere presoak zigorrak gizarte- eta familia-erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten ez duen politika bat, zeinek erraztuko baitu bere senideekin harremana izatea, bere seme-alaba adingabeen ongizatera begira eta horiek gurasoekin egoteko duten eskubidearen aldeko politika.

Era berean, Udal honek, bat egiten du hurrengo abenduaren 31an, arratsaldeko 18.30 -etan, Villabona eta Zizurkilen, ORAIN PRESOAK lelopean egingo den manifestazioarekin, eta Larraulgo herritarrei parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi die.”

Asensio zinegotziak hitza hartzen du adierazteko, mozioaren lehenengo zatia konpartitzen duela baina ez dutela moziaren bigarren zatia babesten, beraz, bere botoa kontrakoa izango dela. Beste Udalbatzarkideak mozioa bere osotasunean onesten dute.

Gaia azterturik, eta bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoaz, Larraulgo Herritarrak aurkezturiko mozioa bere osotasunean onesten du.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA